

BARNE ARAUTEGIA ETA ZERBITZUEN ESKULIBURUA

Unamuno Ikastetxe Nagusia

Ikastetxe Nagusiaren Arautegia (EHAA 2013/5373)

Ongi etorria opa dizugu.

Eskuliburu hau egin dugu Unamuno Ikastetxe Nagusiak ematen dituen zerbitzuei buruzko argibide baliagarri batzuk zuri emateko. Ongietorria ematearekin batera, egonaldi ona eta hemen bizi garen eta lan egiten dugun guztiokin elkarbizitza ezin hobea izatea opa dizugu.

Ikastetxe nagusiko zuzendaritzak, administrazioak eta beste langileak arrakasta opa dizu zure bizitza profesionalean eta pertsonalean.

Ahalik eta egonaldirik mesedegarriena izan dezazun, gomendatzen dizugu eskuliburu hau arretaz irakurtzea eta, dudaren bat izanez gero, ikastetxe nagusiko atezaintzara edo administrazioa jotzea; hor atsegin handiz emango dizute nahi duzun informazioa.

Zure konpromisoa

Ikastetxe nagusi honetarako onarpena jasota, ulertzen da gurekin eta ikastetxeko zure ikastetxe-kideekin hainbat konpromiso espezifiko hartu duzula, barne arautegian eta zerbitzuen eskuliburuan agertzen diren konpromisoak hain zuzen. Ikastetxe nagusiaren helburuak dira egoitza-zerbitzu egokia ematea eta egoitzan daudenen prestakuntza pertsonala, kulturala eta zientifikoa sustatzea. Horregatik, egoitzan daudenei ikastetxe nagusiaren jardueretan parte hartzeko eskatuko zaie; jarduera horietako asko egoitzakoek bertakoek proposatutakoak eta antolatutakoak dira. Ez hori bakarrik: zuzendaritzak ikasleek proposatutako eta antolatutako jardueren alde egingo du, ikastetxe nagusiaren helburuak betetzen laguntzen badute.

Arau hauekin eta ikastetxe nagusiarekin duzun konpromisoak eragin erabakigarria izango du zure egonaldian; izan ere, gelak esleitzerakoan kontuan hartuko dira merituko akademikoak, ikastetxe nagusiaren jardueretan parte-hartzea eta antzinasuna. Irizpide horiek ez ezik, ikasturte akademikoan izandako portaera ere kontuan izango diren faktoreak izango dira berriztapen-prozesuan, hurrengo ikasturtean ikastetxe nagusian plaza lortzeko.

Egitura eta antolakuntza

Unamuno Ikastetxe Nagusiaren zuzendaritza zuzendaria, zuzendariordea, administratzailea eta ikasleen bi ordezkari osotzen duten Zuzendaritza Kontseiluaren eskutan dago. Ikastetxe Nagusia kudeatzeaz administratzailea eta idazkaria arduratzen dira, mantentze-lanen arduraduna, behar diren konponketak egiteaz arduratzen dena, plantillakoa da ere bai. Ikasleei janaria prestatzeko eta zerbitzatzeko sukaldari talde bat eta jantokiko zerbitzu bat daude. Atezaintza bat ere badago, non txandakatzen diren segurtasunaz, harreraz, telefonoz eta ikasleek eskatzen dituzten konponketak mantentze-lanak egiten dituenari jakinarazteaz arduratzen direnak. Garbiketa-zerbitzua arduratzen da eraikin guztia garbitzeaz eta, bereziki, ikasleen logelak garbitzeaz.

Ikus dezakezunez, taldea txikia da baina ahal dugun guztia egingo dugu erakunde publiko eta irabazi-asmorik gabeko hau zaintzeko, kostuak handitu gabe eta eraikineko 143 gelei eta guztientzako espazioei eutsiz.

Orain ezagutzen duzu gure egitura, eta badakizu norengana jo ikastetxearen funtzionamenduari zerikusia duen edozer gauza behar duzunean.

Ikastetxe nagusiko langileak

Ikastetxe nagusiko langileen inguruan zenbait gomendio. Langileak gure lankideak dira. Funtsezko zeregina betetzen dute, ikastetxe nagusiari bizirik eta erabilgarri eusteko; horiei esker, funtzionatzen dute gauzak ondo eta zuzen. Beraz, guztiaren arrakastaren edo porrotaren erantzukizun-zati bat dute. Hortaz, errespetuz eta aintzat eduki itzazu. Ez iezaiezu ukatu agurra, begikotasuna eta estimu-sentimendua, beren zereginak arduraz eta ahaleginaz betetzeagatik merezi dute eta. Deskuidatzen badira, ez iezaiezu ukatu giza errespetua, guztiok egiten ditugu-eta akatsak. Hitz egin zuzendaritzarekin, baina ez urratu gure lagun hurko zibilizatuengandik guztiok itxaroten dugun begirunearen, sen onaren eta gizabidearen muga.

Zure ordezkariak

Ikastetxearen egituraren barruan, ikastetxeko batzarra dugu ikasleen 9 ordezkari eta zuzendaritzako ordezkari batek osatutakoa. Ikastetxeko batzarra ikasle eta zuzendaritzaren arteko komunikaziorako organoa da, ikasleen multzoari legezkiokkeen gai eta errebindikazioak aztertzeko. Ikastetxe batzarrak zuzendaritza kontseiluari egin beharreko proposamenak egiten ditu, kontseiluko kideak zuzendaria, administratzailea eta ikasleen bi ordezkariak izanik.

Ikastetxeko batzarreko kideak hautatzeko hauteskundeak zuzendaritzak deitzen ditu. Botoa ikastetxe-kide nagusiek ematen dute eta ez da derrigorrezkoa; baina, administrazio bat eraginkorra eta aktiboa izan dadin, beharrezkoa da guztien laguntza eta interesa. Horregatik, sistema honi eutsi nahi badiozu, lagundu egin behar duzu, ez bakarrik zure botoarekin, bai eta ere plazetako batera hautagai gisa aurkeztuz ere, hauteskundeak epea irekitzen denean. Horretarako, zure izena, zure gelaren zenbakia eta zure datuak eman behar dituzu iragarki-oholetan; besterik ez.

Hautatuak izan eta izendapena onartzen duten unetik, ikastetxe batzarreko kideek bere egiten dute ordena eta diziiplina gordetzen laguntzeko konpromisoa.

Batzordeak

Ikasleek ikastetxe nagusiaren kudeaketan eta jardueren antolaketan hartzen dute parte, batzordeen bitartez. Batzordeetan egongo dira Ikastetxe Nagusiaren funtzionamendu-arloetan parte hartu nahi duten ikasleak, hain zuzen ere gehien interesatzen zaizkien funtzionamendu-arloetan parte hartu nahi duten ikasleak. Batzordeetan gogoz parte hartzea da ikastetxe nagusiaren eguneroko bizitzan behar bezala txertatzeko modu bat; ikasleak bizitza horretan txertatzen ari direlako seinale argia ere izango da. Ikasturte bakoitzeko urrian eratzen dira batzordeak.

Batzorde hauek daude: kirola, joko, festa, , liburutegia, kultura, elkartasun-batzordea, Banda, Koroa, euskara, jantokikoa eta ikasleek interesgarri iritzi eta proposatzen dituzten nahi beste arlotako batzordeak.

Kurtso akademikorako matrikulatzen direnentzat Ikastetxe Nagusiaren irekitzea

Ikasturte akademikoa irailaren 1etik maiatzaren 31era da, bi egunak barne, Eguberrietako eta Aste Santuko opor egunak kanpo, betiere UPV/EHUreren egutegi ofizialaren arabera.

Opor egunen ostean ikastetxe nagusia lehenengo eskola-egun bezperako arratsaldean irekiko da.

Ikastetxe nagusiko ordutegia

Ikastetxe nagusia egunero egongo da irekita 07:00-24:00 bitartean. Ikasleren batek ordutegi horretatik kanpo, hau da, 24:00ak baino beranduago itzuli behar badu, sartzen den bakoitzean idatziz adieraziko du sartu dela atezaintzan.

Ikastetxe nagusiak 24 orduz izango du atezaintza zerbitzua eta zaintza zerbitzua.

Ez egoteak eta irteerak

Aste barruan eta asteburuetan, ikasleren batek ikastetxe nagusitik kanpo egun bat edo gehiagotarako egin behar badu, idatzita utzi beharko du atezaintzan noiz irten behar duen, noiz itzuli behar duen eta nora joan behar duen.

Era berean, Eguberrietako eta Aste Santuko oporretan idatziz utzi beharko du atezaintzan oporretara noiz irten behar duen eta noiz itzuli behar duen.

Norberaren janzkera

Ikasleek janzkera, portaera eta, oro har, arropen buruzko arau sozialak zaindu behar dituzte, bisitatzen gaituzten pertsonen eta gainerako ikasleei gutxieneko errespetua izate aldera.

Arau horiek talde-ekitaldietan zainduko dira bereziki: ikastetxe nagusiaren ekitaldi ofizialetan, jangelan, bileretan, hitzaldi-aretoan, TB gelan, atondoan eta beste gizarte-arlo batzuetan.

Jangelara eta telebista gelara jaitsi ondo jantzita eta ez lo egiteko arroparekin.

Bisitak

Ikasleek behe-solairuko atondoan hartuko dituzte bisitak. Eraikinaren gainerako lokaletara joan nahi duten pertsonen behar bezala identifikatu beharko dute atezaintzan zuzendaritzak jarritako arauak betez.

Ikastetxe nagusikoa ez den edozein pertsonak 10:00etatik aurrera sartu ahal izango du Ikastetxera eta 23:00ak baino lehen irten beharko du, ez beste inoiz.

Ikastetxe nagusiak berezkoak dituen jardueretara ezingo da edozein gonbidatu sartu; horretarako, jardueraren izaera eta jarduerari aplikatu dakizkiokeen arauak hartuko dira kontuan.

Ikasleek nahi dituzten pertsonak gonbida ditzakete jatera, baldin eta aldeztu aurretik abisatzen bada eta dagokion otordu-txartela betetzen eta ordaintzen bada.

Bisitak, zuzendaritzaren baimena gabe, ezingo dute gune komunak erabili eta bisita jasotzen duenak bere

bisitariak egin dezakeen ekintzen arduradun zuzena izango da.

Ikasle egoiliar bakoitzak ezin ditu izanaldi berean bi bisita baino gehiago. Lan bat edo beste aktibitate bat egiteko bisitari gehiagorekin baimena behar izanez gero zuzendaritzari eskatu.

Ikastetxean ezin dira egonaldi berean hamar bisita baino gehiago.

Atondoa

Atondoa, bisitarien harrera egiteko eremua izateaz gain, ikasleek biltzeko eta irakurtzeko duten lekua ere bada. Egunero, ikasleei eskatzen dizkiguten egunkariak jartzen dizkiegu eskura. Ez ahaztu, egunkariak guztiek erabil ditzakete ere, ezinezkoa dela ikasleei egunkari bana ematea. Horregatik, arren eskatzen dizugu egunkariak ez mozteko, egunkarietan ez idazteko eta egunkariak atondoko mahaietatik ez eramateko.

Nola atondoan hala kafetegian freskagarriak, kafea, patata frijituak eta beste gozoki batzuk kontsumitzen dira. Edalontziak, poltsak, latak eta abar zakarrontzira bota behar dira. Aulki eta besaulkietatik altxatzean, lekua garbi utzi.

Hitzaldi-aretoa

Hitzaldi-aretoa da ikastetxe nagusian kultura jardueretarako dagoen lokal espezifikoak; ziklo, jardunaldi, hitzaldi, debate eta zine-emanaldietarako lokala da.

Kontu izan behar da bolumenarekin, biblioteketan edo beren logeletan dauden ikasleei ez molestatzeko.

Jan eta edateko, aretotik irten beharko duzu, horretarako xedaturiko tokietara.

Telebista-gela

Ikastetxe nagusian telebista-gela bat dago, non telebista ikusi daitekeen, VHS bideoarekin eta DVDen erreproduzigailuekin.

Telebistako zein kanal ikusi gehiengoz erabakiko da beti eta gelan dauden guztien adostasunez aldatuko da, ez bestela.

Erabil itzazu egokiro altzariak eta ez jar oinak besaulkiaren gainean.

Kontuz ibili behar da bolumenarekin bibliotekan dauden egoiliarrei traba ez egiteko. Jan eta edateko, aretotik irten beharko duzu, horretarako xedaturiko tokietara.

Musika eta multimedia aretoa

Areto honetan piano bat eta beste musika tresna batzuk daude eta tresna hauek edo zeure musika tresnak erabili ahal dituzu bertan.

Areto honetan ere, DVD erreproduktoreari konektatuta dagoen eta ordenagailurako RGB konexioa duen kanoia dago. Ekipamendu honekin, ahozko aurkezpenak pres-tatu ahal dituzu, bai eta filmen bat ikusi ere.

Jan eta edateko, aretotik irten beharko duzu, horretarako xedaturiko tokietara.

Tentuz ibili behar da bolumenarekin, harreraren diren egoiliarrei enbarazurik ez egiteko eta, ateratzerakoan, utzi dena atonduta, aretoa beste egoiliar batzuek erabil dezaten.

Jangela

Jangelan gosaria, bazkaria eta afaria eskaintzen dira, astelehenetik igandera. Autozerbitzu-sistemaren bidez funtzionatzen du. Lokalean kutxatilategi bat dago, ikasle bakoitzak bere ezpain-zapia gorde dezan. Ezpain-zapiak astean bi aldiz aldatzen dira: astelehenetan eta ostegunetan. Garbitasun eta osasun-arrazoiengatik, ez da janaririk gordeko kutxatilategian.

Ikasleek, era berean, badituzte mikrouhin labe bi, beren janaria berotzeko, eta txigorgailua gosarietan

erabiltzeko. Ikastetxe nagusi honek erregimen bereziko ikasleak onartzen ditu, baina horretarako zuzendaritzan dagokion ziurtagiri medikua aurkeztu beharko da.

Hauek dira ordutegiak:

Gosaria: 07:00-10:00 eskola-egunetan eta 08:30-10:30 eskola gabeko egunetan.

Bazkaria: 12:45-16:15 eskola-egunetan; 13:30-15:00 eskola gabeko egunetan.

Afaria: egunero 20:30-22:00.

Bazkariak eta afariak talde-ekitalditzat hartzen dira eta, ondorioz, komeni da horietara joatea.

Debekatua dago erretiluak, osasun eta higiene arrazoiak medioa, mahai-tresnak, ezpain-zapiak eta baxera jantokitik ateratzea.

Bakoitzari esleitutako anoak errespetatu behar dira, janaria guztientzat iritsi dadin. Berriz jan nahi bada, jantokiko zerbitzuari eskatu behar zaio.

Jantokiko zerbitzuko ez den janaririk ezin da sartu jantokira.

Gaixotasuna bezalako kasu berezietan izan ezik, ezin da janaririk atera jantokitik.

Errespetatu jangelako ordutegia eta, eskola-orduak direla eta ezin baduzu, eman izena atezaintzako zerrendetan, ogitarteko-poltsa eskuratzeko. Poltsa horiek aurreko egunean izena emandakoei entregatuko zaizkie, atezaintzan, 21:00ak baino lehen. Ogitartekoa 12:00ak arte hartu daiteke. Ogitartekoa eskatu eta bazkaltzera joaten bazara ezin izango duzu ogitartekorik eskatu kurtso osoan.

Leioako Kanpuseko eta ingeniari-tza-eskolako ikasleek aukera daukate ikastetxeko administrazioan prezio murriztuan jantokiko baleak lortzeko.

Baldin eta ikasleren batek behar bezala justifikatutako ezinbesteko kasuagatik (kirol federaturen batean entrenatu behar izateagatik, esaterako) bazkaltzera edo afaltzera joaterik ez badu, afaria tupper batean gordetzeko eska dezake. Gela-zenbakia errotuladorez idatzita duen tuppera jantokiko izozkailuan egongo da.

Bibliotekak

Ikastetxe nagusian bi biblioteka edo ikasketa-gela daude. Horietan, mahaia eta bibliografia jartzen dira ikasle guztien eskura. Testu-liburuak dagoen aurrekontuaren arabera eskuratzen dira eta, batez ere, beren irakasleen gomendioak aintzat hartuz ikasleek egiten dituzten eskaeren arabera.

Kontsultako liburuak mailegua eskatu ahal da. Horretarako, dagokion fitxa bete eta idazkaritzan entregatu behar duzu eskaria. Eskatu dituzun liburuak galdu edo kaltetuta suertatuz gero, zeure esku izango da horiek berreskuratzea.

Bibliotekak klimatizatuta daude; neguan berogailua dago eta udan aire egokitua.

Taldeka ikasteko biblioteka prestatuta dago talde-lanak egiteko, baina, ahal bezain isilik egon behar da eta egoki portatzea ere gomendatzen da, lagunak ez molestatzeko.

Biblioteketan funtsezkoa eta derrigorrezkoa da isiltasuna. Eskuko telefonoak itzali edo soinu gabe jarri behar dira.

Biblioteketan erabiltzen den ikasteko materiala zein objektu pertsonalak ezin dira utzi egun batetik bestera. Hau dela eta, egunero gure bi biblioteketan bertako ez den guztia garbitzeko zerbitzukoek kenduko dute.

Jan eta edateko, aretotik irten beharko duzu, horretarako xedaturiko tokietara.

Logelak

Ikastetxeak nahi du ikasle guztiak elkarrekin harmonia onean bizitzea. Elkarbizitza oso atsegina izan daiteke;

baina isolamendua, angustia eta bakardadea ere eragin ditzake elkarbizitzak, baldin eta ikasle bakoitzaren indibidualtasuna eta pribatutasuna errespetatzen ez bada, horren interes intelektual, pertsonal, akademiko eta profesionalen arabera.

Horregatik, gure iritziz logelak pribatutasun horren gelak dira eta bakoitzaren nortasuna islatzen dute. Hori horrela izanik, gure asmoa da logela bakoitzean ikasleentzat beharrezkoa eta ezinbestekoa den erosotasuna egotea, ikasteko, atsedean hartzeko eta lo egiteko.

Funtsezko bi arau daude elkarbizitzaren eta beharrezkoa den pribatutasunaren artean harmonia egon dadin.

Lehenengoa da isiltasuna errespetatzea eraikineko pasilloetan eta eskaileretan, egunez baina batez ere gauez, 23:00-09:00 bitartean zaratarik ez egiten saiatuz.

Bigarren arauaren arabera, berriz, ikasleen logelak norberaren benetako pribatutasuna edukitzeko babeslekutzat hartzen ditugunez, normala da logelak norberaren beharretara egokitzea, baina pintura, hormak eta gainerako instalazioak kaltetu gabe. Ez da ipini behar graparik edo torlojurik hormetan, ateetan eta armairuetan, eta kolarik ere ez da erabiliko. Debekatua dago hormak, sabaiak, ateak eta armairuak honda ditzaketen kartelak edo beste objektu batzuk ipintzea. Altzariak lekuz aldatzea nahi bada, mantentze-lanen arduradunari kontsultatu behar zaio.

Ikasleek ezin dute gelaz aldatu. Aldaketaren bat egin nahi izanez gero, kontsultatu zuzendaritzarekin.

Ikasle bakoitzak izendatzen zaizkion altzariak zaindu beharko ditu eta, ikasturte-amaieran, kontserbazio egoera ezin hobean entregatu beharko ditu.

Ikasle bakoitzak lepora dakizkioken kalteengatik erantzungo du eta gastuak logelaren titularrek ordainduko dituzte, nahiz eta erabiltzaileak egin dituela frogatu ez. Hortaz, ikasturte hasieran agiri bat emango dizugu zure gelaren egoera egiaztatzeko. Sinatu eta Atezaintzan aurkeztu behar duzu.

Garbiketa-zerbitzuko langileak 09:00etatik aurrera sartuko dira logeletan. Ikasle bakoitzak bere ohea egin beharko du, ikastetxe nagusiak emandako izarak barne, eta bere logela garbi eta txukun eduki beharko du. Logelak garbitzeko eta zaintzeko gainerako eginkizunak ikastetxe nagusiko pertsonalaren esku egongo dira. Hilean behin garbiketa zerbitzuko arduradunak logelak aztertuko ditu.

Segurtasun-arrazoiengatik logeletan ez dira aparatu elektrikoak erabili behar, aurrez zuzendaritzaren baimena eta mantentze-lanetarako zerbitzuaren oniritzia eskatu gabe, gure sare elektrikoarentzat arriskutsua delako.

Ezin da animaliarik eduki ikastetxe nagusian. Loreak edo landareak eduki daitezke logeletan. Gauza bakarra eskatzen dugu: leihoetan ipintzea. Izan ere, arriskutsuak izan daitezke ikastetxearen kanpoaldetik igarotzen diren pertsonentzat.

Ikasleek logelatik ateratzen direnean beraien atea itxitzea aholkatzen da eta ikastetxe nagusitik irteterakoan atezaintzan utzi beharko dute beren giltza. Gela irekita uzten duen ikasle egoiliarra bertan gerta daitezkeenaren erantzule zuzena izango da.

Kirola

Ikastetxeak ez du kirol pistarik baino Bilboko Kirol Zerbitzuarekin adostuta, igerilekuak erabili ahal izateko karnetak ditu. Karnet hauekin Bilboko udaletxeko edozein igerileku erabil dezakezu. Karneta igerilekura joan aurretik eskatu eta bueltatzen zarenean ikastetxera atezaintzan utzi beste batek erabili dezan.

Ikastetxeak gimnasioak ditu, sotoan, ariketa fisikoak egiteko; ikasle guztiek erabil dezakete.

Telefonia eta faxa

Logela guztietan dago telefonia; kanpoko deiak ikastetxe nagusiaren telefonogunetik barrena sartzen

dira. Deiak txartelaren bidez ordain daitezke. Dei bat jasotzen baduzu eta, une horretan, logelan ez bazaude, megafoniatik deituko dizute. Ikastetxean ez bazaude, berriz, deiak hartzen dituenak enkargua hartu eta zure kutxatilategian utziko dizu.

Zeure logelatik hargunera deitzeko **7499** markatu behar duzu, besterik ez. Gela batetik beste batera deitzeko **6 + gelaren zk.** markatu behar da. 10. solairuan, lehenengo zenbakiaren orde 6 jartzen da.

Telefonia-zerbitzu horrez gain, ikastetxeak faxa ere badu (946017494). Faxaren bidez, testuak jaso eta bidal ditzakezu, dagokion tarifa ordainduta.

Dokumentuen kopiak

Atezaintzan fotokopiagailu bat dago. Fotokopiagailua 24 orduz duzu martxan, premiazko beharretarako, dagokion tarifa ordainduta. Orrialde-kopurua handia bada, gomendatzen da fotokopia-dendetara joatea, zerbitzua kolapsatu ez dadin. Makina hori bera kafetegiko eta atondoko ordenagailuen inprimagailu gisa erabiltzen da.

Arropa-garbiketa

Ikastetxe nagusiko zerbitzuen zeregina den ohetako eta bainugeletako arropak aldatzeaz gain, ikasleek eskura dituzte garbigailuak eta lehorgailuak, norberaren arropa garbitzeko, autozerbitzu-erregimenean. Euro bateko txanponen bidez funtzionatzen dute. Ikasleek eskura dituzte, era berean, plantxatzea egiteko nahikoa plantxa eta plantxatzeko ohol.

Ikastetxe nagusiak ez du erantzungo ikasleen arropa pertsonalengatik.

Osasuna eta gaixotasunak

Ikasleren batek osasun-zentroan sartzea eskatzen ez duen gaixotasun iragankorren bat badu (gripea,

ondoeza) ikastetxea ahaleginduko da osatzeko behar duen erosotasuna ematen; salbuespen moduan, otorduak bere logelan egiten ere utziko dio.

Kasu larriak zuzendaritzari jakinarazi behar zaizkio, behar diren neurriak hartzeko. Larrialdietarako, gertuena dagoen larrialdi-zerbitzudun ospitale publikoa Basurtokoa da.

Komeni da osasun-seguru pribatua duten ikasleek zein konpainiarekin duten kontratua eta zein den ikastetxetik gertuen daukate osasun zentroa adieraztea.

Istripua izanez gero, atezainari jakinarazi behar zaio (7499), eta horrek UPV/EHUren Istripuetarako Jardunbide Gida aintzat hartuz beti. Atezainari istripuaren berri ematen zaionean, adierazi behar zaizkio istripu-mota eta non gertatu den, larrialdiak uzten duen neurrian eta ahalik eta zehaztasun handienarekin.

Ikastetxe nagusiko ospakizunak

Hiru festa garrantzitsu ospatzen ditugu urtero: ikasturtearen irekiera, urrian; Eguberrietako afaria, abenduan; eta ikasturtearen amaiera, apirilean.

Gorabeherak eta zehapenak

Barne arautegia beste ikasleren batek hautsi eta arau hauste horren biktima zu bazara, ez erreakzionatu indarkeriaz. Jo ezazu ikastetxe nagusiko pertsonalarengana eta zuzendaritzarengana. Zuzendaritzak kasuan zerikusia izan duten pertsona guztiak entzungo ditu eta, eskura dituen elementu guztiak aintzat hartuz, erabaki bat hartuko du.

Ikasleren batek hutsegite bat egiten badu edo goian adierazitako arauen bat betetzen ez badu, ikastetxe nagusiak ohartarazpen bat egingo dio eta, berrerortzea badago edo hutsegitea larria bada, kanpora botako du.

Hasiberriei egiten zaien burla guztiz debekatua dago eta debeku hau ez errespetatzea ikastetxetik berehala botatzeko arrazoia izango da.

Alkohola, tabakua eta drogak

Debekatua dago ikastetxe nagusian edari alkoholodunak sartzea eta edatea.

Debekatuta dago UPV/EHUko ikastegi eta lokal guztietan erretzea, bakoitzeko atea behin pasatuz gero. Hori dela eta, sarreretan hautsontzi seinaledunak jarri dira.

Drogak hartzeak eta edukitzeak, "bigunak" direlakoak izan arren, falta larritzat hartuko da eta Ikastetxe Nagusitik berehala kanporatzea ekarriko du.

Baja emateko prozedura

Baja boluntarioa administrariari eskatu beharko zaio, gutxien dela, 15 egun lehenago. Lau hilabete baino gutxiagoko egonaldietarako, ordaindu beharrekoa gela okupatuta egon den egunen arabera izango da. Lau hilabete baino egonaldi luzeagoentzako, ikasturtea amaitu bitartean geratzen den tartean plaza betetzen bada, ordaindutako hiruhilekoa, unean uneko hilekoa izan ezik, itzuliko da.

Administrazioaren ordutegia

Idazkaritza irekita dago 09:00-14:00 bitartean.

Internet

Ikastetxe nagusiak Interneterako wiffi konexioa du, eta kafetegian internetera konexioa irekita daukaten lau ordenagailu daude. Zerbait inprimatu nahi izanez gero, atezaintzako fotokopiagailua erabili behar da.

Ordenagailuok erabilera akademikorako dira, hortaz ezin erabil daitezke jolasteko. Zuzendaritzak ezarritako erabilera arauak errespetatu behar dira.

Konponketa-eskabidea

Zure logelan edo guztientzako espazioetan egin behar den edozein konponketa atezaintzan eskatu behar duzu. Hor, konponketen liburu bat izango duzu beti eskura. Materiala eskuratzea eskatzen ez duten konponketa txikiak badira, lehenbailehen egongo dira; normalean 24 ordutan, jaiegunetan izan ezik.

Ezgaitasunak dituzten pertsonak

Ezgaitasunak dituzten pertsonei zuzenduriko gela egokituak existitzen dira. Hauetariko gela baten beharra izatekotan sartzeko eskabidean horrela adierazi eta gutun bidez beharrianen berri eman.

Arrakasta handia eta egonaldi zoriontsua!

Hauek dira gure iritziz ezinbestean eman behar genizkizun informazioak.

Zure proiektu pertsonaletan arrakasta izatea opa dizugu. Gure aldetik ahal duguna egingo dugu hori horrela izan dadin. Zure bizitza pertsonalaren eta profesionalaren etapa hau gainditzen laguntzeko gaude hemen. Horren truke, zure laguntza baino ez dizugu eskatzen Unamuno ikastetxe nagusiak ikasleei ostatu eta prestakuntza emateko bere eginbeharra betetzen jarrai dezan, hainbat urtetan egiten ari den bezala.

Beste behin, arrakasta handia eta egonaldi zoriontsua opa dizugu.